



JARRAIBIDEAK, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN 2025EKO OTSAILAREN 24KO AGINDUAREN BIDEZ DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IZANGAIEK 2026-2027 IKASTURTEAN EGIN BEHARREKO PRAKTIKA-FASEA ARAUTZEN DUTENAK. AGINDU HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN SARTZEKO ETA HORRA IRISTEKO HAUTAKETA-PROZEDURAK IRAGARTZEN DIRA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren IX. kapituluak (2025eko martxoaren 6ko EHAA) jarraibide hauen tituluan aipatutako funtzionarioen irakaskuntza-praktiken faseko oinarrizko baldintzak ezartzen ditu.

Arau horren 13.1 oinarrian ezarritakoa betez, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren 2026ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez arautzen da praktika-fasea.

Aurrekoa garatzeko, jarraibide hauek Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak ematen ditu, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 11. artikulua (2024ko abenduaren 3ko EHAA) ematen dizkion eskumenetan oinarrituta, eta haien helburua da aipatutako praktikaldiaren erregulazioa osatzea.

1. Praktika-faseak ikasturte bat iraungo du eta zuzeneko irakaskuntzako benetako zerbitzuan 6 hilabete egingo dira. 2026ko irailaren 1etik 2027ko ekainaren 30era bitartean egingo da, biak barne, gutxienez 2/3ko lanaldiarekin.
2. Praktiketako funtzionarioak dauden ikastetxe guztietan, zuzendariak irakasle tutore bat proposatuko du bakoitzarentzat. Irakasle tutore horrek karrerako funtzionarioa izan beharko du beti, eta haren tutoretzaz eta ebaluazioaz arduratuko da.
3. 2026ko irailaren 15erako, zuzendariak HIKU aplikazioaren bitartez tutorea izendatuko du.
4. Era berean, tutore izendapenari buruz aurreikusi gabeko edo aparteko edozein gorabehera berehala jakinarazi beharko zaio erreferentziazko ikuskariari, Kalifikazio Batzordeari helaraz diezaion. Batzorde horrek ikastetxean destinoa duten karrerako irakasle funtzionarioen artean pertsona bat izendatuko du, plantillaren benetako aukerak eta egokitasun handiagoa kontuan hartuta.
5. Gainera, praktiketako funtzionarioari zereginak esleitzean, kontuan hartu beharko da haren jardunak aukera eman behar duela Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren 2026ko uztailaren 15eko Ebazpenaren eranskinean jasotako alderdi guztiak ebaluatzeko. Horretarako, ikastetxeko irakasleen ikasturte-hasierako antolaketan ahalegina egingo da irakasle horien eskola-ordu gehienak oposizioko espezialitateari legez esleitutako arlo, ikasgai, esparru eta lanbide-moduluetakoak izateko.
6. Praktikaldi osoa, ohiko lanaldian emandako sei eskola-hilabete, gutxienez 2/3eko jardunarekin, betetzea eragozten duen edozein inguruabarrak, 2027ko ekainaren 30ean oro har ezarritako datan praktikaldia ezin ebaluatu izana ekarriko du.
7. Hala ere, praktikaldia hasi ondoren, gerora sortutako eta behar bezala egiaztatutako ezinbesteko egoeraren bat gertatzen bada (aldi baterako ezintasuna, semea edo alaba jaiotzeagatiko baimena, adopzioa edo harrera), edo fase horren ohiko garapena eragozten duen ustekabeko inguruabarren bat gertatzen bada, Kalifikazio Batzordeak baloratu egingo du, eta, hala badagokio, praktikaldia murrizteko aukera emango du. Nolanahi ere, Kalifikazio Batzordeak ezohiko izaeraz onartutako praktikaldi hori gutxienez hiru hilabetekoa eta egun batekoa jarraian izan beharko da, gutxienez 2/3ko lanaldiarekin.





8. Praktika-fasea 2027ko ekainaren 30ean amaitzen dutenek eta ebaluazio positiboa lortzen dutenek karrerako funtzionarioaren izaera lortuko dute Hezkuntzako sailburuaren dagokion izendapen-aginduaren bidez, 2027ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.
9. «Ez gai» kalifikatutako pertsonak praktiketako funtzionario gisa jarraituko du «ez gai» kalifikatu eta hurrengo ikasturtean. Fase hori behin bakarrik errepikatu ahal izango du. Kidego eta espezialitate bereko hurrengo urterako hautaketa-prozesurako deialdia egin bada, hurrengo promozioko hautatutakoekin hasiko da lanean, eta, kasu horretan, sartzen den promozioko espezialitatean hautatutako azken pertsonaren hurrengo lekua beteko du.
10. Era berean, praktika-fasea arautzen duen Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren IX. kapituluan horretarako jasotako arrazoiaren batengatik, praktika-fasea 2027-2028 ikasturtera atzeratzea eskatu dutenek 2027ko irailaren 1etik 2028ko ekainaren 30era, biak barne, egin beharko dute eta, benetan egin eta ebaluazio positiboa jaso ondoren, karrerako funtzionario bihurtuko dira 2028ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.
11. Deialdi honen xede diren praktiketako funtzionarioen ebaluaziorako aginduzko dokumentu guztiak HIKU aplikazioaren bidez bakarrik tramitatuko dira.
12. Praktika-aldi osoa amaitu ondoren, tutoreen proposamenaz gain, ebaluazio-txosten hauek kargatuko dira HIKU aplikazioan:
 - Tutorearen eta zuzendariaren ebaluazio-txostenak, behar bezala beteta (item guztiak baloratuta, salbuespenik gabe) eta sinatuta.
 - Hezkuntzako Ikuskaritzak ikus-onetsitako txostenak, irakasle tutorearen eta zuzendariaren ebaluazio-txostenetan oinarrituta.
 - Hezkuntzako Ikuskaritzaren txosten espezifikoak, zuzeneko esku-hartzea behar izan duten kasuei buruzkoak.

Gainera, informazio gisa, Hezkuntza Sailaren webgunean ("lan-arloak" > Hezkuntzako Ikuskaritza > Ikastetxeentzako dokumentuak > DBH eta Helduen Hezkuntza/Batzilergoa/Lanbide Heziketa Zikloak > Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa) irakasle-kidego guztientzako txosten-eredu berriak eskegiko dira. Eredu horietan jasoko dira Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren eranskinean ezarritako praktika-fasean ebaluatu beharreko alderdiei dagozkien adierazleak.
13. Praktika-fasean zehar, ikastetxeko zuzendariak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio erreferentziazko Hezkuntza ikuskariari edozein gorabehera edo inguruabar, baldin eta, bere ustez, bere ikastetxean destinoa duten funtzionarioen praktika-fasea behar bezala garatzeari edo ebaluatzeari eragin badiezaioke, eta ondoen dagokion esku-hartze espezifikoa eskatu beharko du. Kasu horietan, Kalifikazio Batzordeak esku-hartze espezifikoa eskatu ahal izango dio Hezkuntza Ikuskaritzari.
14. Praktikak gainditzeko, gutxienez maila finkatua lortu beharko da ikastetxeko zuzendariaren, esleitutako tutorearen eta erreferentziazko ikuskariaren txostenetako adierazle guzti-guztietan. Horietakoren baten balorazioa nahikoa ez bada, Kalifikazio Batzordeak, ebazteko, txosten osagarri bat eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzari, ezarritako prozeduraren arabera.



15. Kalifikazio Batzordea da, jasotako txostenetan oinarrituta, funtzionarioen praktika-fasea ebaluatzeko eskumena duen organoa. Praktikaldian "gai" edo "ez gai" kalifikatuko du, eta gainditzeko edo ez gainditzeko proposamena egingo dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
UNAI NIETO MARIJUAN